

**KARMELEN 300. ALEA!**  
**(1931-2017)**

Ohitura da argitalpenen zenbaki biribilak gogoratzea edo ospatzea. Zenbaki biribilek esanahi berezia dute. Eta aldizkariak, batez ere euskal aldizkariak, gogoan hartuz, 300. aleak lehenengo eta behin etengabeko ekintzen bizitza luzea adierazten du, urte askotako ekintza kulturala. Eta halako gertaerak gogoratzeraz eta ospatzeraz gonbidatzen gaitu.

Eta noizbehinka geuk ere gogoratu izan ditugu urteurren batzuk: adibidez, 3. aroko lehenengo 15 urteak, 1954-1970 (Karmel 1985-3), 25. urtea (Karmel 1994-4), baita azken zuzendariaren lehenengo 25 urteak ere (Karmel 2008-3 eta 4)... Eta orain hasieratik (1931tik, *Karmengo Argia* izenaz orduan) gaur arte (Karmel 2017-4) ateratako zenbaki guztiak kontuan hartuz, 300. zenbakia pozik gogoratzen dugu.

Zenbaki guztiak, eta aldizkariaren inguruan argitaratutako produkzioa, irudi eta guzti, 2016an ateratako “Karmel Katalogoa”n ikus daiteke (Markina-Xemein 2016, 72 or.).

Urteetako bizitza luzeak eguneroko lana, asmoak, gogo bi-ziak eta eginbeharrak ditu berekin, baita oztopoak ere, eta batez ere oztopo nagusiak, hau da, gobernuaren debekuak eta arnasa moztea...; euskararentzat eta euskal kulturarentzat hain kaltegarri izan zirenak. Baina Karmel aldizkariak egoera sozio-politiko txarretik jaso ahal izan zuen berriko burua, nahiz eta

mehatxupean egon..., eta bizirik eta gogo handiz bere fruituak gaur arte eskainiz jarraitu zuen.

300. zenbakian, Karmelen historia kontuan hartuz, egoki da aldizkariaren datu batzuk gogoratzea:

Lehenengo eta behin aldizkariaren historiako **zuzendariak**. Hiru izan dira gerra zibilaren aurreko sei urteetan (orduko izena “Karmengo Argia”): Aita Martin Uriarte; Aita Pio Asua; Aita Lino Akesolo (honek azken zenbakia bakarrik atera zuen, 1936ko abuztuko zenbakia). Beste hiru zuzendariak gerra ostetik gaur arte datoz: Santi Onaindia (“Karmen’go Amaren Egutegia”, 1951-1956; eta Karmel 1957-1958; 1970-1972); Karmelo Zubizarreta (1974-1983), eta Julen Urkiza (1984tik gaur arte).

Aldizkariak bi herritan izan du bere egoitza: 1993 arte Zorrotzan eta geroztik gaur arte Markina-Xemeinen.

Azken aldian *karmelen* atera diren idazlanen bibliografia osoa ere aurkeztu izan da: Karmel 2008-3, 1-338 (1931-2007); eta Karmel 2016-4, 29-50 (2008-2016). Bibliografia hori aztertzean konturatzen gara zein lan luze eta zabala egin den: datu huts esanguratsuak dira hauek: 700 idazle baino gehiago agertzen dira; 5.000 idazlan inguru...

Gehien erabilitako gaiak hauek dira: Kultura eta batez ere euskal kultura, eta literaturari dagozkienak. Adibidez, ideia bat gogoan hartzeko, kasu berezia literaturan: *Karmelen* 3.500 olerki inguru agertu dira (*Olerki* aldizkarikoak barne); eta hau uste dugu ekarpen handia dela euskal literaturarako.

*Karmelek* hasieratik bere estilo eta helburuekin leial jokatu du urteetan zehar: idazle berriak sortzeko aukera izan da; eta idazle eginek euren jakintza azaltzekoa. Beste aldetik euskarren erabilerari dagokionez, askatasuna eskaintzen du, euskalkiak erabiltzeko nahiz euskara batua erabiltzeko... Gaiei dago-

kienez, bost arlo eskaintzen ditu: Kultura, Gizartea, Eliza, Iritzia eta Literatura.

Ikus dezakegunez, Karmel gehienbat euskal kulturako aldizkaria dugu, eta hala jarraitzekotan da.

Urteetan zehar Karmel aldizkariak bere izena eta tokia lortu ditu euskal kulturaren eta literaturaren. Eta orain dela lau urte, Karmelek 2013ko ekainaren 3an jaso zuen Urrezko Luma Bilboko Liburu Azokan; merezimenduzko saria bere idazleen bidez lortutakoa izan da.